

NOLA ESKATU GELAK ETA MATERIALAK EUSKADIKO GAZTERIAREN KONTSEILUARI

1. Nortzuk eskatu ditzakete gelak eta materialak?

- Euskadiko Gazteriaren **Kontseiluko elkarte** guztiak.
- **Gaztez osatutako gainerako elkarte** eta gizarte mugimenduek, erregistro batean elkarte bezala ofizialki osatuta egon ala ez.
- Gaztez osatuta ez dauden **elkarte eta kolektiboek**, Euskadiko Gazteriaren Kontseiluko arduradunek hala onartuz gero.
- **Bestelako eragileek**, Euskadiko Gazteriaren Kontseiluko koordinatzaileek hala onartuz gero.

2. Zenbatekoa da gela eta materialen fidantza?

Elkarte edo taldeek fidantza murriztu bat ordaindu beharko duzue. Begiratu ezazu [fidantzen zerrenda](#).

Beste kasu batzuetan:

Euskadiko Gazteriaren Kontseilua koordinatzen duen taldeak ([Batzorde Iraunkorrak](#)) erabakiko du 1-15 eguneko epean zure eskaera onartzen duen edo ez eta, onartuz gero, zer baldintza ezartzen dituen.

3. Nola egin behar da eskaera?

1. [Eskaera orria](#) bete.
2. EGK-ko parte-hartze teknikariarekin **kontaktuan jarri** (Xuban Zubiria). Deitu izeaiozu astelehenetik ostiralera 17.00ak baino lehen 688 676 099 telefonora, ala idatzi mezu elektronikoko bat partehartze@egk.eus helbidera. Berarekin adostu ahal izango duzu materiala edota gelak nola hartu eta itzuli.
3. Eskatu duzun materiala edo gela erabili ahal izateko fidantza bat ala alokairu bat ordaindu behar baldin badituzu, materiala jaso baino lehen egin beharko duzu ordainketa, bestela ezin izango dizugu utzi. Hemen duzu [fidantzen zerrenda](#).
4. Jaso ezazu materiala edo gelak erabiltzeko giltzak adostutako egunean eta tokian, eta bertan emango dizugun [lagapenaren ziurtagiria](#) bete.
5. Itzuli ezazu materiala edo/eta gela adostutako egunean.

Beste kasu batzuk:

Jar zaituz kontaktuan EGK-ko parte-hartze teknikariarekin (Xuban Zubiria). Deitu izeaiozu astelehenetik ostiralera 17.00ak baino lehen 688 676 099 telefonora, edo idatzi mezu elektronikoko bat partehartze@egk.eus Azaldu izeaiozu zure eskaera. Berak esango dizu zer pausu jarraitu EGK-ko arduradunek zure kasua aztertu dezaten.

4. Zenbateko aurrerapenarekin egin behar dut erreserba?

Nahi duzun aurrerapenarekin eskatu ditzakezu gelak edo materialak. Hori bai: eskatutakoa libre eta erabiltzeko moduan dagoen edo ez baldintzatuko du eskaera. Zure eskaera 15 eguneko aurrerapenarekin

egitea gomendatzen dizugu. Bi elkartek gauza bera eskatzen badute data berean, EGK-ko taldeek izango dute lehentasuna.

5. Noiz erabili ditzakegu EGK-ko gelak?

Edozein egun eta ordutan, libre dauden bitartean. Donostia eta Bilboko egoitzek bilera-gelak dituzte EGK-ko langileen eremutik bereizita eta, beraz, orokorrean edozein egun eta ordutan erabili daitezke, EGKren lana oztopatzen ez den bitartean. Aldiz, Gasteizko egoitzan oraindik ez dugu lanpostuetatik bereizita dagoen lan-bilerarik eta, beraz, lan-ordutegitik kanpo baino ezin da erabili egoitza ([deitu eta galdetu](#)).

6. Zenbat egunerako eskatu ditzaket materialak eta gelak?

Mailegu-zerbitzua erabilera puntualetarako da: alegia, ezin da elkartearen ohiko jarduerarako erabili. Materiala **astebete jarraian** erabili dezakezue gehienez, eskakizuna egiten duzuen bakoitzean. Epe luzeago baterako ala aldizkakotasun finko batekin erabili behar baldin baduzue, esan iezaguzu eta zuen kasua aztertuko dugu, balizko salbuespeneko baldintza ekonomikoak aztertzearekin batera.

Gelei dagokionez, nahi duzuen denborarako eskatu ditzakezue, betiere erabilera puntual baterako baldin bada eta EGK-ko lana oztopatzen ez duzuen bitartean. Epe luze eta jarrai batean zehar erabili nahi baldin badituzue (ikastaroak, topaketak...) galdetu eta kasua aztertuko dugu, balizko salbuespeneko baldintza ekonomikoak aztertzearekin batera.

7. Noiz eta nola egin behar dut ordainketa?

Mailegu zerbitzua erabiltzeko fidantza bat ordaindu behar baldin baduzu (fidantzen [zerrenda](#) ikusi), materiala edo geletan sartzeko giltza eskuratu baino lehen egin beharko duzu ordainketa. Bestela, ezin izango dizugu mailegua egin. Behin EGK-k eskatutakoa izango duzula ziurtatzen dizunean, orduan fidantzaren diru-sarrera egin ahalko duzu hurrengo kontu-korrontean:

Kutxabank

Kontzeptua: "ELKARTEAREN IZENA – MATERIAL"

Euskadiko Gazteriaren Kontseilua – Consejo de la Juventud de Euskadi. Kutxabank.

(IBAN IS63) 2095 0353 82 5060444029

8. Zer jarduera motarako eskatu ditzaket gelak eta materialak?

Elkartearen jardueretarako oro har, beti ere puntualak direnean, irabazi asmorik gabekoak eta parte-hartzearekin eta gizarte mugimenduekin zerikusia dutenak: bilerak, batzarrak, eztabaidak, topaketak, ikastaroak, lan saioak, mobilizazioak, prentsaurrekoak (galdetu baldintzak [Komunikazio arloan](#)), kale ekintzak...

9. Non eta noiz jaso behar dut materiala edo gela erabiltzeko giltza?

[Eskaera orria](#) bete ondoren, jar zaitetz kontaktuan Kontseiluko parte-hartze teknikariarekin, Xuban Zubiria. Deitu iezaiozu astelehenetik ostiralera 17.00ak baino lehen 688 676 099 telefonora ala idatzi iezaiozu mezu elektronikoa bat partehartze@egk.eus helbidera. Berarekin adostu ahal izango duzu materiala nola hartu eta itzuli eta bestelako zalantzak argitu. Salbuespenak izan ezik, material ertain eta handiak¹ dauden egoitzetan

¹ Proiektzio pantaila, papelografoa, soinu ekipamendua, mahaiak, aulkiak.

hartu beharko dira. Material txikiei² dagokienez, egoitza batetik bestera mugitzen ahaleginduko gara, EGKren barne ahalmena eta denboraren arabera. Edozein kasutan, guk materiala eramatea ezinezkoa izanez gero, dagoen egoitzan hartzeko aukera izango duzu beti.

10. Zer gertatzen da zerbait apurtzen baldin bada?

Materiala edo utzitako geletako zerbait apurtuz gero (erabilera txarragatik, ezezagun batek zerbait apurtzen dizuelako, eguraldi txarragatik edo bestelako edozein arrazoiengatik), Euskadiko Gazteriaren Kontseiluak zuri eskakizuna egingo dizu (maileguaren arduradun bezala), zure elkarteak kalteak konpondu ditzan ala konponketa ordaindu dezan. Fidantza bat ordaindu baldin baduzue, EGK-k konponketa egiteko behar den diru-kopurua kenduko dizue fidantzatik. Fidantza nahikoa ez baldin bada, zure elkarteak fidantza eta konponketaren prezioaren arteko aldea ordaindu dezan eskatuko dizugu.

Bestetik, Euskadiko Gazteriaren Kontseiluan materialak eta gelak ondo zaintzen ez dituzten, eskaerak egiteko datu faltsuak erabiltzen dituzten edo dokumentu honetan zehaztua dagoen baldintzaren bat betetzen ez duten elkarteei berriro ez lagatzeko eskumena gordetzen dugu.

11. Noiz eta nola itzuliko didate fidantza?

Fidantza bat ordaindu baldin baduzu eta erabilitako materiala egoera onean itzultzen baduzu, Euskadiko Gazteriaren Kontseiluak fidantza itzuliko dizu zuk erabili zenuen prozedura bera jarraituz, gehienez lau asteko epean.

12. Zer gertatzen da azkenean hartutako materiala ezin baldin badugu erabili?

Fidantza bat ordaindu baldin baduzu baina materiala edo gela ezin izan baduzue erabili eta egoera onean itzultzen baduzue, fidantza itzuliko dizuegu.

13. Zer gertatzen da isuna ala zigorra jartzen baldin badizuete?

Erabilitako material edo gelarekin lotuta isun edo zigorren bat jasotzen baldin baduzue, Euskadiko Gazteriaren Kontseiluan ez gara kargu egingo eta ez dugu inolako ardurarik hartuko.

Beste zalantzaren bat baldin baduzu:

partehartze@egk.eus

688 676 099

² Argazki kamera, bideokamera, grabagailua, proiektorea.